

B1 ikastaroaren apunteak

SINTAXIA

Perpaus kontzesiboak

PERPAUS KONTZESIBOAK

Perpaus kontzesiboak perpaus nagusiko ekintza gertatu ahal izateko dagoen oztopoa edo zailtasuna adierazten du; hala ere, oztopo hori ez da nahikoa perpaus nagusiko ekintza bete ez dadin. Adibidez:

Aurrelariak gola sartu du, atezainak baloia gelditzeko ahalegina egin duen arren. (*El delantero ha metido un gol, a pesar de que el portero ha hecho un esfuerzo para parar el balón*)

Azpimarratuta dagoen perpaus kontzesiboan, baloia bere atean sar ez dadin, atezainak jarri duen "oztopoa" adierazten da; baina ez da nahikoa izan, azkenean aurrelariak gola sartu baitu.

Perpaus kontzesiboak osatzeko egitura ohikoenak ondorengo hauek dira:

• **ARREN**

Aditz laguntzailea erabili gabe: (... arren)

Baiezko esaldietan:

Negua izan arren, eguraldi ona daukagu (*A pesar de ser invierno, tenemos buen tiempo*)

Ezezko esaldietan bi forma ditugu:

Dirurik ez eduki arren, oparia ekarri dio (*Aunque no tiene dinero, le ha traído un regalo*)

Dirurik eduki ez arren, oparia ekarri dio

Aditz laguntzailearekin: (... -n arren)

Baiezko esaldietan:

Argi guztiak piztu dituzten arren, ez da ondo ikusten (*Aunque han encendido todas las luces, no se ve bien*)

Leihoak ixten ditugun arren, autoen zarata entzuten da gure etxean (*Aunque cerramos las ventanas, se oye el ruido de los coches en nuestra casa*)

Ezezko esaldietan:

Ikusi ez dudan arren, badakit nolakoa den (*Aunque no lo he visto, ya se cómo es*)

• **NAHIZ ETA**

Aditz laguntzailea erabili gabe: (nahiz eta ...)

Baiezko esaldietan:

Nahiz eta gutxi jan, lodi dago (*Aunque come poco, está gordo*)

Ezezko esaldietan bi forma ditugu:

Nahiz eta partidua ez irabazi, zoriondu egin dugu (*aunque no ha ganado el partido, le hemos felicitado*)

Nahiz eta partidua irabazi ez, zoriondu egin dugu

Aditz laguntzailearekin: (nahiz eta ... -n)

Baiezko esaldietan:

Nahiz eta soldata igo diguten, oraindik gutxi irabazten dugu (*Aunque nos han subido el sueldo, todavía ganamos muy poco*)

Ezezko esaldietan:

Nahiz eta gehiegi gustatzen ez zaidan, jan egingo dut (*Aunque no me gusta demasiado, me lo comeré*)

- **BA...ERE**

Aditz laguntzailearekin beti (... ba-... ere)

Baiezko esaldietan:

Gezurra dela ematen badu ere, egia da (*Aunque parece mentira, es verdad*)

Ezezko esaldietan:

Ezer esaten ez baduzu ere, badakit zer ari zaren pentsatzen (*Aunque no digas nada, ya se que estas pensando*)

B1 ikastaroaren apunteak

SINTAXIA

Erlatibozko perpausak

1. -(E)N

Sustantiboa azaltzen ez denean, **-(E)N** horri deklinabideko atzizkia jartzen zaio esaldi nagusian duen funtzioaren arabera:

Etorri nahi duena etorriko da (*vendrá quien quiera venir*)

Interesatzen zaionak galdetuko du (*el que le interese preguntará*)

Eskatzen duenari opari bat emango zaio (*al que lo pida se le dará un regalo*)

Prest dagoenarekin egingo dugu lana (*trabajaremos con quien esté dispuesto*)

2. -TAKO/-DAKO, -(R)IKO

Erlatibo mota hau **aditzaren ekintza bukatua** denean erabiliko dugu:

Zuk gomendatutako liburua (gomendaturiko liburua) ez zait gustatu (*el libro recomendado por ti no me ha gustado*)

Zuk atzo oparitutako (oparituriko) alkandora ez da nire neurrikoa (*la camisa regalada por ti ayer no es de mi talla*)

Atzo apurtutako (apurturiko) kristala zeuk ordaindu behar duzu (*El cristal roto ayer lo tienes que pagar tú*)

Zuk azokan erositako (erosiriko) sagarrak ez dira gozoak (*Las manzanas compradas por ti en la plaza no son sabrosas*)

2.- Erlatiboaren mugak

Erlatiboa egiteko bide arruntak erabilita **-(e)n**; **-tako**, **-(r)iko**), zenbaitetan esaldiaren esanahia ilun gera daiteke, hurrengo adibidean ikus dezakezunez:

El bocadillo que he comido me ha gustado mucho: Jan dudan ogitartekoa asko gustatu zait. Esaldi honen esanahia oso argi dago, baina ikusi hurrengoak:

La chica con la que he comido me ha gustado mucho. Esaldi hau egiteko ezin dugu ohiko bidea erabili: Jan dudan neska asko gustatu zait; jandako neska asko gustatu zait. Kasu hauetan beste bide batzuk erabili ahal ditugu. Ikus ditzagun:

a) Esaldiari buelta eman:

La chica con la que he comido esan beharrean, *la chica que ha comido conmigo* esan ahal dugu eta horrela esaldiaren esanahia argi geratzen da: *Nirekin jan duen neska asko gustatu zait*.

b) Aditza aldatu:

Adibidez, esan behar badugu: *el chico para el que habeis traído el regalo es muy majo*, eta ohiko bidea ilun geratzen bada (*oparia ekarri duzuen mutila oso jatorra da*); aditza aldatu ahal dugu: *El chico que ha recibido el regalo es muy majo*: zuen oparia jaso duen mutila oso jatorra da

c) Aposizioa erabili: "Zein... + -(e)n"

Bide hau erabiltzeko, koma artean sartzen da azalpenezko esaldi bat, erlatiboaren sujetoa erabili beharrean **zein** erabiltzen da dagokion kasuan deklinatuta eta aditzari subordinazio marka bat **(-n)** eransten zaio. Ikus ditzagun zenbait adibide.

La chica con la que he comido me ha gustado mucho: Neska, zeinarekin jan dudana, asko gustatu zait.

El chico para el que habeis traído el regalo es muy majo: Mutila, zeinarentzat oparia ekarri duzuen, oso jatorra da

B1 ikastaroaren apunteak

SINTAXIA

Konparaziozko perpausak

LAS ORACIONES COMPARATIVAS

El adjetivo en euskera admite tres grados:

- el grado comparativo (-ago). *Aste honetako lana zailAGOa da*
- el superlativo (-en). *Aste honetako lana zailENa da*
- y el grado de exceso (-egi). *Aste honetako lana zailEGIa da*

Estas referencias al adjetivo valen también para el adverbio

EL GRADO COMPARATIVO: -AGO / comparativa de desigualdad

La comparación en euskera puede ser de igualdad o de superioridad. La comparación de inferioridad (menos grande, menos caro, etc...) no existe en euskera.

El grado comparativo se forma con **-ago**

HANDI > HANDIAGO (MÁS GRANDE, MAYOR)
 TXIKI > TXIKIAGO (MENOR)
 POLIT > POLITAGO (MÁS BONITO)
 EGOKI > EGOKIAGO (MÁS APROPIADO)
 GARESTI > GARESTIAGO (MÁS CARO)
 BERANDU > BERANDUAGO (MÁS TARDE)
 URRUTI > URRUTIAGO (MÁS LEJOS)

La conjunción empleada en este tipo de comparación es **BAINO**, resultando la siguiente estructura:

Ejemplos:

- Bilbo Donostia baino handiagoa da / *Bilbao es mayor que San Sebastián*
- Donostia Bilbo baino politagoa da / *San Sebastián es más bonito que Bilbao*
- Ura ardoa baino merkeagoa da / *El agua es más barata que el vino*
- Ardoa ura baino garestiagoa da / *El vino es más caro que el agua*

HOBE

Una excepción de lo dicho anteriormente es el adjetivo ON cuyo comparativo es HOBE

- Nire erlojua ona da, baina zurea hobe / *Mi reloj es bueno, pero el tuyo mejor*
- Gaurko eguraldia atzokoa baino hobe da / *El tiempo de hoy es mejor que el de ayer*

HOBETO

La forma comparativa del adverbio ONDO es HOBETO

- Nire erlojua ondo dabil, baina zurea hobeto / *Mi reloj anda bien, pero el tuyo mejor*
- Ibonek Eustakiok baino hobeto hitz egiten du / *Ibon habla mejor que Eustaquio*

GEHIAGO / GUTXIAGO

La comparación de cantidad se realiza por medio de GEHIAGO (más) y GUTXIAGO (menos)

- Anek Pilik baino gehiago erretzen du / *Ane fuma más que Pili*
- Aberatsek pobreek baino diru gehiago dute / *Los ricos tiene más dinero que los pobres*
- Zuk nik baino gutxiago dakizu / *Tú sabes menos que yo*
- Orain lehen baino gutxiago irabazten dugu / *Ahora ganamos menos que antes*
- Gehiago nahi dut / *Quiero más*

LA COMPARACIÓN ADVERBIAL

En euskera los adverbios nunca llevan artículo. Observa esta diferencia en los siguientes ejemplos:

- Hau errazagoa da / *Esto es más fácil (adjetivo)*
- Honela errazago egingo dugu / *Así lo haremos más fácilmente (adverbio)*
- Hemen lasaiago mintzatuko gara / *Aquí hablaremos más tranquilamente*
- Orain okerrago bizi gara / *Ahora vivimos peor*
- Argiago hitz egin ezazu! / *¡Habla más claro!*

COMPARATIVAS DE IGUALDAD

Cuando se comparan dos cosas en plano de igualdad, se utilizan los siguientes elementos en euskara. **BEZALA, BEZALAKO, BEZAIN** ETA **BESTE**

COMPARATIVA DE MODO > NOLA

BEZALA = como

Nik zuk bezala hitz egiten dut / *yo hablo como tú*

BEZAIN = tan como

Nik zuk bezain arin hitz egiten dut / *yo hablo tan rápido como tú*

COMPARATIVA DE CUALIDAD > NOLAKOA

BEZALAKOA = como

Mikel Aitor bezalakoa da / *Mikel es como Aitor*

BEZAIN = tan como

Mikel Aitor bezain argala da / *Mikel es tan delgado como Aitor*

COMPARATIVA DE CANTIDAD > ZENBAT

BESTE = tanto como

- Nik zuk beste ur edan dut / *yo he bebido tanta agua como tú*
- Irunek Barakaldok beste biztanle dauzka / *Irún tiene tantos habitantes como Barakaldo*

B1 ikastaroaren apunteak

SINTAXIA

Gero eta -ago

GERO ETA... -AGO

(cada vez más...)

Hona hemen zenbait adibide:

- Ez zaude urduri? Ni GERO ETA urduriAGO nago (*¿No estás nerviosa? Yo estoy cada vez más nervioso*)
- GERO ETA HOBETO egiten duzu (*Cada vez lo haces mejor*)
- GERO ETA jende GEHIAGO sartzen ari da (*Está entrando cada vez más gente*)
- GERO ETA nekatuAGO nago (*cada vez estoy más cansada*)

AHALIK ETA ...-EN(A)

Lo... más posible

- AHALIK ETA lasterren joango naiz. (*Iré lo mas rápido posible*)
- Guk AHALIK ETA ondoen egingo dugu. (*Lo haremos lo mejor posible*)
- AHALIK ETA onenak aukeratzen saiatu naiz. (*He intentado cojer los mejores*)

ZENBAT ETA ---AGO, ORDUAN ETA...AGO

Hona hemen zenbait adibide:

- ZENBAT ETA urduriAGO egon, ORDUAN ETA okerrAGO. (*Cuanto más nerviosa estés, peor.*)
- ZENBAT ETA gehiAGO ikusi, ORDUAN ETA nahasiaAGO nago. (*Cuanto más veo, más liada estoy*)
- ZENBAT ETA gutxiAGO hitz egin, ORDUAN ETA hobeto. (*Cuanto menos hables, mejor*)

Oharra: "orduan eta" erabili beharrean, "hainbat eta" erabil daiteke; adibidez:

ZENBAT ETA urduriAGO egon, **HAINBAT ETA** okerrAGO (*Cuanto más nervioso estés, tanto peor*)

B1 ikastaroaren apunteak

ADITZA

Subjuntiboa

Subjuntiboa

Zertarako erabiltzen da?

Subjuntiboak lau erabilera dauzka :

Helburua adierazteko: Txostena mahai gainean utzi dizut labur dezazun (*Te he dejado el informe encima de la mesa para que lo resumas*)

Nahia adierazteko: Nirekin etor zaitezen nahi dut (*Quiero que vengas conmigo*)

Agindua adierazteko: Etor dadila medikuren bat! (*¡Que venga un médico!*)

Perpaus konpletiboak : Kontuz ibil dadila esan diot. (*Le he dicho que ande con cuidado*)

¿Nola erabiltzen da?

Subjuntiboarekin aditz-oina (etor, ibil, ikus, har,...) erabiltzen da eta aditz laguntzaile bat Nor, Nor-Nori, Nor-Nork edo Zer-Nori-Nork sistemetakoa. Apunte-orri honen azpian ikus ditzakezu aditz laguntzaile horien kuadroak bai orainaldian, bai lehenaldian. Adibidez:

Orainaldian: Etor dadin nahi dut (*Quiero que venga*)

Lehenaldian: Etor zedin nahi nuen (*Quería que viniese*)

¿Noiz erabiltzen da?

Gaur egungo euskara mintzatuan subjuntiboa oso gutxitan erabiltzen da, ezinbestean baino ez. Gehienetan, subjuntiboaren ordeza nominalizazioak erabiltzen dira (-T(z)ea, -t(z)eko)

Helburua adierazteko, -t(z)eko erabiltzen da: Txostena mahai gainean utzi dizut labur dezazun = Txostena mahai gainean utzi dizut zuk laburtzeko.

Nahia adierazteko, -t(z)ea erabiltzen da: Nirekin etor zaitezen nahi dut = Zu nirekin etortzea nahi dut

Perpaus konpletiboan, -t(z)eko erabiltzen da: Kontuz ibil dadila esan diot. = Kontuz ibiltzeko esan diot

Beraz, mintzatzean sarriago erabiltzen dira nominalizazioak; idaztean, berriz, subjuntibozko formak erabil daitezke. Baina, kontuz!, subjuntiboa ez da erabiltzen esaldi nagusiaren subjektua eta esaldi subordinatuaren subjektua pertsona bera denean. Adibidez:

He comprado un libro para que lo leas = Liburu bat erosi dut zuk irakurtzeko (Ondo) = liburu bat erosi dut irakur dezazun (Hau ere ondo dago, pertsona ezberdinak direlako: nik erosi eta zuk iraurri)

He comprado un libro para leerlo (yo) = Liburu bat erosi dut irakurtzeko (ondo). *Liburu bat erosi dut ~~irakur dezadan~~* (Hau gaizki dago, pertsona bakarra delako: nik erosi eta nik irakurri)

Noiz erabiltzen da -(e)n eta noiz -(e)la?

Subjuntibozko aditz laguntzaileak bi bukaera izan ditzake: -(e)n eta -(e)la; adibidez: dadin / dadila. Noiz erabili behar da bata eta noiz bestea?

-(e)n erabiliko da **helburua** adierazteko (Irakur dezan utzi diot), **nahia** (Etor dadin nahi dut) eta **aginduak** emateko, baina lehenengo pertsonarekin (Has gaitzen lanean)

-(e)la erabiliko da **konpletiboarekin** (Joan zaitezela esan du) eta **aginduak** emateko, baina 3. pertsonarekin (Joan dadila etxera)

subjuntiboa

